



Bizitzak BIZIARAZI

PREKARIETATEARI AURRE EGITEKO, MARTXAN!

Urteak dira jada gazteok ongi ezagutzen dugula zer den **lan baldintza txarrak jasotzea Dantxarinean**. Eskualdeko ehunka gaztek bentetako **lan prekarioa** jasan behar izaten dugu, aitzinera egiteko. Beltzean kobratutako orduak, lanordu amaigabeak, astean egun bakarra libratzea... ezaguna zaigu guzti hau.

Gure nagusiek **badakite nola erabili gure herrian inposatu diguten muga**, haien poltsikoak ongi betetzeko. Alde bateko edo bertzeko prezio ezberdintasuna erabiliz, **kontsumo eredu masibora** bultzatzen gaituzte, haiek **ahalik eta irabazi gehien lortzeko**, eta gu gero eta sumisoago edukitzeko.

Eta **gu nazkatuta gaude**, nazkatuta haien mesederako **lan baldintza txarretan lan egiteaz**, bai muga inposatu honen alde bateko zein bertzeko gazteok. Horregatik **borroka bateratu bat** egingo dugu, eskualdeko Aitzinako eta Ernaiko gazteok, **lan baldintza duin batzuen alde**.

Eskualdean bizi egin nahi dugulako, ez biziraun!

#EHBizi #Bizarazi



Bizitzak BIZIARAZI

PREKARIETATEARI AURRE EGITEKO, MARTXAN!

Urteak dira jada gazteok ongi ezagutzen dugula zer den **lan baldintza txarrak jasotzea Dantxarinean**. Eskualdeko ehunka gaztek bentetako **lan prekarioa** jasan behar izaten dugu, aitzinera egiteko. Beltzean kobratutako orduak, lanordu amaigabeak, astean egun bakarra libratzea... ezaguna zaigu guzti hau.

Gure nagusiek **badakite nola erabili gure herrian inposatu diguten muga**, haien poltsikoak ongi betetzeko. Alde bateko edo bertzeko prezio ezberdintasuna erabiliz, **kontsumo eredu masibora** bultzatzen gaituzte, haiek **ahalik eta irabazi gehien lortzeko**, eta gu gero eta sumisoago edukitzeko.

Eta **gu nazkatuta gaude**, nazkatuta haien mesederako **lan baldintza txarretan lan egiteaz**, bai muga inposatu honen alde bateko zein bertzeko gazteok. Horregatik **borroka bateratu bat** egingo dugu, eskualdeko Aitzinako eta Ernaiko gazteok, **lan baldintza duin batzuen alde**.

Eskualdean bizi egin nahi dugulako, ez biziraun!

#EHBizi #Bizarazi